



Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu jauna:

COVID-a dela eta, egoera berezia bizitzen ari gara hezkuntza komunitatean. Gure ustez, Hezkuntza Sailaren kudeaketa eskasa eta inprobisatua izan da pandemia hasieratik, eta ez ditu kontuan hartu hezkuntza eragileen proposamenak. Eta orain ere, eskoletara itzuli garenean, eskasa izaten ari da.

Baina tamalez, ez da egoera berria: aspalditik gaude oso kezkatuta Hezkuntza Sailak azken urteetan eskola publikoari begira egin duen kudeaketarekin. Horregatik hasi ginen EAE mailan indarrak batzen hezkuntza publikoaren defentsan. Hainbat herri eta hiritan tokian tokiko arazo zehatzak daude, baina badakigu finean horren atzean zer dagoen: Hezkuntza Publikoa -ekitatean eta aukera berdintasunean oinarritzen den hezkuntza zerbitzu bakarra- ez dela lehenetsi, ezta zaindu ere, eta ondorioz atzerakada nabarmena eman duela, egindako politikak lagun. Egungo egoeran, gainera, beldur gara pandemiak ez ote dituen estaliko hezkuntza sistema dual (publiko-pribatu) eta injustu honetan Hezkuntza Publikoak dauzkan oinarrizko arazo larriak.

Hezkuntzako sailburu berria zarenez, pandemiaren ondorioz sortutako gabeziez gain, gure erkidegoan eskola publikoak aurretik ere bazeuzkan arazo horiei hel diezaiezula eskatzen dizugu.

Zerrenda luzea da, baina biziki kezkatuta gaude Administrazioak zuzenean Hezkuntza Sailaren kudeaketaren menpekota den hezkuntza zerbitzu publikoarekiko erakusten duen konpromiso eta lehenetasun faltarekin; izan ere, maila berean jartzen ditu hezkuntza pribatu-itundua eta publikoa, berdinak ez diren sareak parekatuz, merkatu libre batean aukeran dauden produktuak balira bezala, eta horren ondorio dira eskola segregazio izugarria, eskola publikoaren kaltetan erraztu den itunpeko ikastetxeen hazkuntza, eskola publikoak bizi duen baliabide falta...

Guraso elkarteetatik, hainbat herritako plataformetatik, gizarte kohesionatu eta justu baterantz eramango gaituen kalitatezko hezkuntza publikoaren alde lanean jarraituko dugu, eta bide horretan familion, langileon eta ikasleonek aldarrikapenak kontuan har ditzazula eskatzen dizugu. Euskal Eskola Publikoaz Harro gaudenez, ez dugu onartuko atzerapauso bat gehiago ere. Bada garaia urteetako joera aldatzeko, Jokin Bildarratz jauna: espero dugu zure kargutik gure bidelagun izatea, eta denon artean merezi dugun hezkuntza publikoa eraikitzea, auzolana hori baita, ezta?

Adeitasunez,

“Publikoaz harro” plataformaren sustatzaileak

2020ko irailaren 29a.



Señor Jokin Bildarratz, Consejero de Educación del Gobierno vasco:

Debido al COVID, la comunidad educativa se encuentra en una situación especial. En nuestra opinión, la gestión de la Consejería de Educación ha sido escasa e improvisada desde el inicio de la pandemia, y no ha tenido en cuenta las propuestas de los agentes del ámbito educativo. Incluso ahora, en la vuelta al cole, la respuesta sigue siendo insuficiente.

Sin embargo, y por desgracia, esta situación no es nueva: llevamos mucho tiempo preocupados/as por la gestión que desde la Consejería se ha llevado a cabo con respecto a la escuela pública durante los últimos años. Por esa razón, precisamente, empezamos a unir fuerzas a nivel autonómico para defender la educación pública. En diversos pueblos y ciudades hay problemas locales, pero todos ellos tienen un mismo origen: que la Educación Pública, el único servicio educativo basado en la equidad y la igualdad de oportunidades, ni se ha priorizado, ni se ha protegido, por lo que ha sufrido un evidente retroceso, a causa de las políticas llevadas a cabo. En la situación actual, además, tememos que el problema de la pandemia deje ocultos los graves problemas de base que sufre la Educación Pública a causa del actual sistema dual (público-concertado) e injusto.

Como nuevo Consejero de Educación le pedimos que, además de las carencias causadas por la pandemia, aborde también los problemas que ya existían en la escuela pública en nuestra comunidad autónoma.

La lista es larga, pero nos preocupa especialmente la falta de compromiso y prioridad que muestra la Administración hacia el servicio educativo público que depende directamente de la Consejería de Educación, pues pone al mismo nivel la educación privado-concertada y la educación pública, equiparando dos redes que no son iguales, como si se trataran de productos entre los que elegir en el mercado libre; consecuencia de dicha actitud son, entre otros, la enorme segregación escolar; el crecimiento de la red concertada, favorecida en detrimento de la red pública, o la falta de recursos de la escuela pública.

Desde las AMPA, desde diversas plataformas locales seguiremos trabajando a favor de una educación pública de calidad que nos lleve hacia una sociedad cohesionada y justa, y en ese sentido, le pedimos que tenga en cuenta las reivindicaciones de las familias, de los y las trabajadoras y del alumnado. Como estamos orgullosos/as de la Escuela Pública Vasca, no vamos a tolerar que se dé ni un paso más atrás. Ya es hora de cambiar la tendencia de los últimos años, señor Bildarratz: esperamos que desde su cargo nos acompañe en este camino y que entre todos y todas podamos construir la educación pública que nos merecemos. Porque en eso consiste el trabajo en común, ¿no es así?

Afectuosamente,

Impulsoras de la plataforma "Publikoaz harro"

A 29 de septiembre de 2020